

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

870

166/2023 EBAZPENA, otsailaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren eskaintako destinoak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A2 Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko (Kudeaketako Langileen Epaimahaira atxikitako kategoriak) Lekualdatze lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloari dagozkionak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1309/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen A2 Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako (Kudeaketako Langileen Epaimahaira atxikitako kategoriak), zeinetan Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoria sartzeko baita (2021eko azaroaren 8ko EHAA 221. zk.), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 515/2021 Ebazpenaren bidez (azararen 30eko EHAA 238. zk.), Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloaren eskaintza argitaratu zen, A2 Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriarako (Kudeaketako Langileen Epaimahaira atxikitako kategoriak).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 7ko 1009/2022 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A2 Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloan eskaintako destinoak (Kudeaketako Langileen Epaimahaiari atxikitako kategoriak).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten 1309/2021 Ebazpenaren I. eranskineko A2 Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldearen Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda (Kudeaketako Langileen epaimahaiari atxikitako kategoriak). Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, Ebazpen honen I. eranskinaren bidez, A2 Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriako (Kudeaketako

Langileen Epaimahaira atxikitako kategoriak) destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko onartutakoen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 515/2021 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen honen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 515/2021 Ebazpenaren eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Hirugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Laugarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiak betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiak, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiak osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileak, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen bada, hilabeteko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAAn destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenetan badago.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Seigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 oinarrian xedatutakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2023ko otsailaren 20a, astelehena

I. ERANSKINA

515/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA

LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-TEKNIKARIA

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***1219**	Manjon Lozoya, Roberto	58,4370
2	***5051**	Fullaondo Barrutia, Ramon	40,1010
3	***9472**	Manterola Dudagoitia, Ander	38,0170
4	***7162**	Arauzo Uriarte, Xabier	36,3550
5	***6797**	Urrutxi Arkarazo, Zezilia	34,6970
6	***3277**	Lopez Lopez, Gontzal	34,0680
7	***3567**	Agirregoikoa Azkorra, Jone	33,6100

2023ko otsailaren 20a, astelehena

III. ERANSKINA

515/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA

LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA

KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***1219**	Manjon Lozoya, Roberto	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	4	2006-07-20
***5051**	Fullaondo Barrutia, Ramon	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	4	2013-12-03
***9472**	Manterola Dudagoitia, Ander	Gorlizko Ospitalea	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gorlizko Ospitalea-Gorliz / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	4	2007-06-01
***7162**	Araozo Uriarte, Xabier	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Gurutzetako Uniberts. Ospitalea-Barakaldo / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	4	2021-07-01
***6797**	Urrutxi Arkarazo, Zezilia	Debagoieneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Debagoieneko Ospitalea-Arrasate/Mondragón / Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua-Euskara Zerbitzua / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	4	2013-12-03